

Trumpen ispilua



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Trumpen itzulera pizgarri izan da sendotuz doan eskuin muturreko erreakzionarioen mugimenduarentzat. Izan ere, historikoki, faxismoaren gorakada krisi ekonomikoekin lotuta egon da, baita sistemaren zilegitasun politiko eta ideologikoaren krisiarekin ere. Gaur egun, geldialdi ekonomikoak eta prekarizazio orokorrak etorkizunarekiko konfiantza ahuldu dute eta errudunak bilatzeko joera indartu. Testuinguru honetan, eskuin muturra frustrazio hori kanalizatzen ari da, gutxiengoak eta talde ahulak jopuntuan jarrita.

Euren burua antisistematzat aurkezten duten arren, mugimendu horiek elite ekonomikoaren interesak defendatzen dituzte, eta diskurtso populistarekin kamuflatzen dute. Barne aniztasuna izan arren, eskuin muturreko alderdi guztiek oinarritzko elementu komun batzuk partekatzen dituzte: enpresa pribatuaren defentsa, fortuna handientzat zerga murrizketa, lanaren desarautzea eta testuinguruaren arabera protekzionismoa edo neoliberalismoa sustatzea. Gainera, gastu publikoa murriztea eta babes sozialerako egiturak deuseztatzea bultzatzen dituzte.

Trumpen itzulera ispilu baten aurrean jarri beharko gintuzke, krisi klimatikoak eta krisi sozialak are gehiago handituko duten desberdintasunaren aurrean

Hala ere, gehiengo elektoralak lortzeko, eskuin muturrak gerra kulturalaren estrategia erabiltzen du, gai ekonomikoetatik arreta desbideratzeko eta desadostasuna etsai faltsuengana kanalizatzeko, hala nola immigrazioa edo "genero ideologia". Diskurtso horrek, batez ere, langile klaseko gizon zuriak ditu helburu. Hain zuen, kapitalismoak bizi-maila eta itxaropenak murriztu dizkienak. Prekarizazio horren aurrean, eskuin muturrak pribilegioak eskaintzen dizkie, beste kolektibo batzuk lan-

merkatu eta baliabide sozialetatik baztertuta, eta erresuminean oinarritutako klase arteko aliantza sortuta.

Bestalde, neoliberalismo progresistak aukera-berdintasunaz hitz egiten digu, eta gaitz txikiagoaren izenean, meritokrazia eta giza kapitalaren irizpideak oinarri, baliabideak justuki banatuko dituen *statu quo* baten defentsa proposatzen du. Horrela, langile klasea bi aukeren artean harrapatuta dago: batzuek gutxi batzuen pribilegioa defendatzen dute besteen bazterketaren kontura, eta besteek, berriz, desberdintasuna legitimatzen dute igogailu sozialean oinarrituta.

Zentzu ona asaldatzen zaigu norbait jatorriagatik edo sexuagatik baztertuta izan daitekeela pentsatzean. Zergatik iruditzen zaigu bidezkoa beste arrazoi batzuegatik jendea atzean uztea? Trumpen itzulera ispilu baten aurrean jarri beharko gintuzke, krisi klimatikoak eta krisi sozialak are gehiago handituko duten desberdintasunaren aurrean: eskuin muturrak bezala bazterketarekin erantzun dezakegu, edo aberastasunaren banaketan oinarritutako proiektu baten aldeko apustua egin. ●